

LA COMPAÑIA ANÓNIMA BASCONIA

BASCONIA, SOZIETATE ANONIMOA

XIX. mendeko azken herenean, eta Foruen deuseztatzearen ondorioz (1841), ekonomikoki eragin zuen onurarekin, Basaurin eta Bilbotik gertuko udalerrietan fabrika instalazio multzoa eraiki zen, eta horrek ola zaharraren garaitik industria siderurgiko modernora igarotzea ekarri zuen.

Horrela 1843an, Ayarragaray familiak Larrazabal-Kareaga auzoan kobrezko galderen fabrika eraiki zuen herriko kontsumoa hornitzeko helburuz, hori izan zen La Basconia fabrikaren sorburua, zeren eta 1892an Ricardo Rochelt, Deustuan eztaintzeko tailer baten jabea, Enrique Gana ingeniariarekin harremanean jarri zen latorrizko xaflak egiteko fabrika bat jarri zitekeen aztertzeko, eta une hartara arte, estatuko kontserba-industriak atzerriarekiko zeukan menpetasuna saihesti ote zezakeen jakiteko.

1892ko azaroaren 30ean Bilbon, COMPAÑÍA ANONIMA BASCONIA erakundea sortu zuen bilbotar merkatari eta industrial talde batek, eta beste batzuen artean hain ezagunak diren izen hauek agertzen dira, Victor Chavarri, Ramon Ibarra, Jose Manuel Arrispe, Tomas Zubiria, Ildefonsa Ayarragaray eta Gana eta Rochelt Jaunak. La Basconiaren bazkide fundatzaileak garai hartako bilbotar burgesiaren parte ziren, eta ez zen lehenengo bider, mota horretako industria-ekimen batean parte hartzen zutela.

Fabrika, Auarragaray familiak zuen galdara fabrikako antzinako instalazioen gainean, eraiki zen, eta industria berria eraikitzeko obrei 1893ko irailaren 17an eman zitzaizen hasiera. Obrek 17 hilabeteko iraupena izan zuten, eta 1894ko irailaren 17an jarri zen abian ingeles teknologia siderurgikoarekin, momentu hartan modernoena zena.

Hasieran, fabrika beroan laminatzeko bi tren duorekin eta bi hotzean laminatzekoarekin eraiki zen (bakoitzak eztaintua jartzeko bere sukaldea zuen), eta bestalde, doiketarako tailer bat, galdategia eta galdaragintza zituen.

1896. urtean estatuko merkatu enpresaren produkzio osoa bereganatzen zuen, eta hori horrela, instalazioak handitu egin behar izan ziren. Akzionisten Juntara aurkeztutako memorian, laminatutako xaflaren 4.329.765 kilo ekoitzi zirela esaten zen, eta latorrizko xaflak zituzten 70.215 kaxa, bakoitza 50 kilokoa, saldu zirela. Eraitza oso ona 26 tekniko eta 250 langilez osatutako plantilla batentzat.

1898. urtean, latorrizko xafla laminatzeko hirugarren tren bat instalatu zen, txapa beltzaren soberakinei irtenbidea emateko, eta azkenik, tailer bat, ontziak, palak eta bainuak egiteko, eta horrek bazuen ere zegokion galvanizatze atala.

Fabrikazio prozesu osoa barne hartzeko helburuz, BASCONIA enpresa sidero-metalurgikoa izatera pasa zen 1900. urtean, orduan eraiki baitziren Siemens-Martin labeekin altzairuzko f bat, altzairuzko lingoteak totxotan arbastatzeko laminazioko tren, fermachinea laminatzeko tren bat eta galdaketa bat kubiloteekin.

1903an amaitu ziren elektrizitatea sortzeko Arizeko ur-jauziak, altzairuzko bi labeak eta laminazioko trenak, merkatal profilak eta fermachinea.

1904. urtean, altzairuzko Siemens-Martin hirugarren labea eraiki zen, palen tailerra muntatu zen, eta nabeen muntaia prestatu zen xafla ertain eta meherako

trenentzat, eta baita ere, forjaketa, doikuntza eta galdaragintzako tailerrak. Enpresa ongi zihoanez, latorriaren produkzioa handitu zen, eta laminatzeko tren berriak jarri ziren.

1907. urtean, eraikuntza metalikoen tailerra muntaturik geratu zen.

Lehen Mundu Gerra aukera bikaina izan zen, Espainia bezala, herrialde neutralak zirenentzat negozioak egiteko, zeren eta herrialde beligeranteen eskariari erantzuteaz gain, gerran zeuden herrialde haiek produzitu eta hartzaile zituzten herrialde haiek ere hornitu behar baitzituzten produktu siderurgikoz.

1917. urtean, merkatal xafla egiteko tren berriak eta galvanizatutako xafla egiteko tailer bat muntatu ziren.

Mundu gerra amaitutakoan produkzioaren murrizketa nabarmena etorri zen, hornidura siderurgikoak eta makineria berria lortzeko zailtasunak baitzeuden.

1920. urtean, zentral termo-elektrikoa muntatu zen, agorte garaian energiaren falta ordezkatzeko.

1924. urtean, fabrikak laminazio eta alanbre trenak zituen, Siemens-Martin altzairua produzitu, eta produktu desberdinetan eraldatzen zuen: xafla beltza, latorrizko xaflak, berundua, prestatua, fermachine, habeak, merkatal burdinak, eta abar. Data horretan elektroimanezko garabi bat muntatu zen, galdara bateria bat lurrina produzitzeko, eta 9 gasogenoren bateria bat ikatz txikiak erabili ahal izateko.

1925. urtean xaflazko tren berriak jarri ziren latorrizko xaflak lortzeko, eta 1926. urtean, Siemens-Martin altzairuzko labe berri bat jarri zen.

Hogeita hamarreko hamarkada hasieran Siemens-Martin bosgarren labea muntatu zen, eta llanton, totxo eta profilak laminatzeko tren berriak eraiki ziren.

Modernizazio prozesua gelditu egin zen berrogeigarren urte inguruan, garai hartan eman ziren gatazka belikoen ondorioz. Izan ere ia ezinezkoa baitzen makineria eta fabrikazioko materialak eta elementuak inportatzea.

Bigarren Mundu Gerra amaitzean, hedapenezko garai bati hasiera eman zitzaion, doikuntzako, forja eta elektrizitate tailer berriak eraikita. Enpresaren helburu nagusia plano zabalen eta atal meheen laminazioa modernizatzea izan zen.

Instalazioen modernizazioarekin, tren berrien produkzioa 80 tonatik 90era bitartekoa zen egunero, latorrizko txapari dagokionez. Altzairutegian 5 Siemens labeak berritu ziren, horien ahalmena 35 tonakoa zen, eta 1951. urtetik aurrera labe elektriko bat egon zen.

Data horietan laminazioko trenen erreforma egitea planteatu zen, produkzioa handitu, kostuak murriztu eta bukatutako produktuen kalitatea hobetzeko helburuz. Inbertsioaren kopurua eta teknologiaren garrantzia hain handia izatean, garai hartan Espainiako siderurgia handiena zen enpresara hurbiltzea ekarri zuen: ALTOS HORNOS DE VIZCAYA (AHV), hori izan ere teknología mota hori instalatzeko aukera aztertzen ari baitzen. Azkenean, bi enpresak akordio batera iritsi ziren bandatan xaflak hotzean laminatzeko fabrika bat sortzeari buruz, Nerbioi ibaiaren eskuma aldeko Etxebarriko Ibarrean.

Bandaseko fabrika abian jartzearekin, Larrazabal-Kareagako jatorrizko fabrika altzairu bereziak produzitzera dedikatu zen, eta nahiz eta urte horietan lortu bazuen ere produkzioerik handiena, aldi horretan hasi zen gainbehera joaten.

1964an itxi ziren antzinako BASCONIA enpresako zenbait atal, horiek errentagarritasun txikia zutelako.

1969an, Basconia enpresa ALTOS HORNOS DE VIZCAYA (AHV) enpresak bereganatu zuen, eta haren instalazioak eraitsiak izan ziren tokia libre uzteko, eta antzinakoenak, Nerbioi ibaiaren ertzean zeudenak, desagertu egin ziren. Gainontzekoa, Etxebarriko fabrikako, bere egunean AHV (gaur ARCELOR MITTAL), produktu bukatuen biltegi bezala erabili zen.

1970an amaitu zen BASCONIA fabrikaren antzinako instalazioen jarduna, ia 80 urtean izan zuen jardura industrialaren ondoren, non latorriaren eta eraikuntza metalikoen fabrikazioa izan zen bere identitatearen ezaugarria. Garai horretan, Larrazabal kalearen Hegoaldean kokatutako pabiloi industrialak LAMINADOS VELASCO SA enpresari saldu zitzaizkion, burdinak eta altzairuak gordetzeko.

70 eta 80 hamarkadetan, Nerbioi ibaiaren ezkerreko ertzean kokatutako instalazio produktibo guztiak erretiratu egin ziren, eta horrek pixkana nabe industrialen hondatzea ekarri zuen, eta gaur egunean erabat abandonatuta daude.

BASCONIA enpresa 3.500 langile izatera heldu zen, eta udalerrri honentzat lehen mailako erreferentzia ekonomikoa eta soziala da. Bere produkzioerik gorenean, altzairuzko 53.000 tona xafra egitera iritsi zen, eta horietatik 32.800 tona latorrian emanak ziren, eta gainontzekoa diskotan, berunean egindako xafletan, lantzen, totxo, profiletan, etab.

Gutxi dakite LA BASCONIA fabrikaren eraiki zirela Deustuko Zubia (1934), Mesedetako Elizaren kupula Areeta-Getxon (1954), San Mameseko Arkua (1953), eta beldar-traktore bat ere bai 1929an 60 CV.ko Mercedes motor batekin ekipatua.

Larrazabal Iparreko instalazio zaharrak lasterrean desagertu egingo dira (SEPESek badauka jadanik eraisteko baimena), hiru nabe kenduta (Eraikuntza Metalikoena hain zuzen ere, non egin zen San Mameseko Tribuna), zeinak ekipamenduzko erabilera berriekin egoitza-multzo berriari integratuko diren, horretan gutxi gora-behera babes ofizialeko 1.200 etxebizitza eraikiko dira, 130.000 m² ko partzela batean. Hala ere, Larrazabal Hegoko instalazioak bere horretan mantenduko dira, 1970. urtetik LAMINADOS VELASCO enpresakoak bihurtu zirenak.

Basauriar familia gehienek LA BASCONIA fabrikaren edo fabrika horrentzat lan egin duten kideak dituzte, eta beren oroimena atsegina izan ohi da orokorrean.

Fabrika horren gizarte obra garrantzitsuen parte dira Larrazabalgo eta San Pedro Multzoko etxebizitzak, Elexaldeko Etxe Merkeak eta Urbiko urbanizazioa, San Pedro eliza, Autonomia kalean zegoen ekonomatoa, Basconiako klinika (gaur egun Tanatorioa), jadanik desagertua den Arte eta Ofiziotako Eskola, San Jose Ikastetxea, Divina Providencia Ikastetxea, Social Antzokia eta abar.

Hauek guztiak, bere gizarte-ekintza garrantzitsuen parte dira: Larrazabal kaleko 10, 12, eta 14 zenbakietan, langileentzako eraikitako 18 etxebizitzak; Pedro Bilbao 2ko 10 etxebizitzak; San Pedroko zazpi etxadietan, ekoizleentzako eraikitako 321 etxebizitzak; Bidearten zegoen Guardia Zibilaren kuartel-etxea; Autonomia kalean zegoen ekonomatua; Baskoniako Botikina (gaur egun beilatokia da); Arte eta

Lanbideen eskola zena (Baskoniako Aprestiz Eskola); San Jose Ikastetxea; Probidentzia Eskola; Social Antzokia; San Pedro eliza, eta abar.